

Oroitzapena: Joxemiel Barandiaranen umetako Ataungo herria

Alkate jauna, Euskalerriko Adiskideen Elkarteko zuzendaria, maikide eta hemen aurkitzen zareten guztioi, agur!

On Jose Migel Barandiaran maixu agurgarria eta adiskide maitearen ome-nezko ekintza hontan partaide izatea ohore bat dela neretzat, argi eta garbi adierazi nahi dut.

Ataungo uri kondairatsuan aurkitzen gara, berritu zaharra ez den Udaletxe atoskor hontan. San Martin auzoan, plaza edo enparantza aurrean, eliz-parrokitik hurbil.

San Gregorioko auzoari begira, «Sara» izena daraman etxe alai eta polit bat oroitzuz. Ondo zaindutako «Sara»-ko ateak beti zabalik aurkitzen ditugu, eta beraien barnean, bizilekua gizabidez berotua, Jose Migel bere illoba Pilarrekin. Jose Migel Barandiaran, beti maitekor, beti adiskide, beti irakasle.

Denok ondo dakigunez, on Jose Migel ataundarra da, «Perunezarra» base-rrian jaioa dugu, aurten ehun urte direla. Ataunen jaio, eta han-hemenka euskal kultur arloan lan paregabea eginez, Atauna itzuli.

On Jose Migelen umetako Ataungo herrian nola bizitze ote zen, gehienbat? Urte osoan, baina batez ere neguko ilun-beltz gogorrean, utzi ezinezkoa zen sendiaren sukalde keetsua. Kanpai zabaleko laratzaren aurrean, herri gertuena ere urruti gelditzen zen garai haietan, amonak edo amak, bere ardatzketari utzi gabe, bilobari edo seme-alabei kontaktzen zizkioten, berak behin eta berriz aurrekoei entzundako gauzak. Naita ibili gabe, ipuia eta kondaira hain errezki batzen diran esaldiak jakinaraziz. Ataungo giro barnean, jentillen bizimodua eta jentilen ilobiak ezagutzen ziren, mugarik gabeko irudir-ena aberastuz

Ipui giroan ardatzketa aipatu dugu, eta Jose Migelen eskutik Elduaiengo kontakizun labur bat datorkigu burura. Gipuzkoar herri hontako irule batzuk,

sorginek bazirela edo ez zirela zalantzan jarri zutelako, hauek, sorginak azaldu zitzaizkien, deiadarkatuz: *Ez gerala, bagerala, amalaumilla emen gerala*.

Aria egiten zuten emakume haien gaberdiko afaria, *sorgiñ afaria* izenarekin ezagutzen zuten.

Iruleak, larunbat gaua etortzean, oheratzerakoan, kiloan gelditzen zitzaie ari gutzia erre egiten zuten, sorginak akelarrera eramane ez zezaten.

Baina mitologia oraingoz utzirik, hartu dezagun gure egitazko bidea.

Irulea kiloaren aurrean ikusia du Jose Migel Barandiaranek, eta iruletik eulearena hurbildu gaitezen. Ataunen, Jose Migelek euleak ezagutu zituen. Ekintza haren lekukoa izana dugu, eta bai eskulangile haien lan tresnen doinu berezia entzun ere. Soinu hau zela eta, Hondarribiko eule baten etxeari *Ran ranenea* deitzen omen zioten, Xabier Aranburu adiskideak esan zidanez.

On Jose Migelek ezagutzera izan zituen haroztegiak ez ziren gure egunetakoen berdinak. Ate zar haundi eta trakets batek isten zituen lantegi haiek. Beraien zorua ezberdin xamarra eta espalez bete agertzen zen. Lan-tresnak: harotzaulkia, opatxurra, marruskaria edo zepilloa, aizkora motz bat etabar. Indar elektrikorik ez zen ezagutzen, gizonaren beso indarra nahikoa zuten bere eskuarteko lanari erantzuna emateko.

Lantoki apal haietan antolatzen ziren etxeko tresnagintzak, baserriko lanabesak, suilla eta lixuontziak, batez ere.

Jose Migel Barandiaran oroitzen da Ataungo errementaritzaz, aintzin eskolako errementaria, eta bai jaso ere *Patxi errementari gaixtoaren* ipuia, inpernuan ere hartu ez zuten gizona, *ori inpernuan ere ez ditek artuko*, esaera zahar bat egiztatuz. Sutegi haien hauspo haundiari eskuz eragiten zioten, kate edo aga baten bidez.

Baigorri entzutera izan nuenez, errementari bat, han harotza izenarekin ezagutua, lanean zutik ari omen zen, lagun batek agurtu zuenean, esanez: *Zer ari aiz, jo ta jo? Zer egingo dek burdin orrekin?*

Eskulangileak honela erantzun zion: *Zabaltzen bada, pala; makurtzen bada, makoa*.

Langileak, jo ta jo, ez zuen ezer lortzen, eta halako batean hartu zuen burdin goritua eta ohiu bat eginez, alboko leihotik sasitara bota zuen, eta bai bat-batean otsoa jaio.

Hau ikusirik, eskulangilearen laguna, benetan harriturik, herrira joan zen, adieraziz zer ikusi zuen; errementariak otsoa egin zuela esanez, eta otso bat egiten duenak ehun egingo dituela errepikatuz.

Herria bildu zen eta erabaki zuen errementari lana debekatzea, lanik egin gabe bizitzeko ordainduz.

Sutegi haiek egur-ikatzarekin mantentzen ziren, eta honek txondarrera garamazki, ikazkinaren bizimodura. Hau honela dela eta, Lazkaon jakitera izan nuenez Ataungo Araoz mendian ikazkin talde bat txondarrean ari omen zen, beraiekin errantxeroa beti zutela, beraien sukaldeko lanetaz arduratzen zena.

Errantxero honek, goizean goiz talo erretzeari ekiten zion, eta txondarrera hurbiltzen zen, lankideei esanez nola gosaria prest zegoen. Baina txabolara itzultzean, talorik ez zuten aurkitzen, hau behin eta berriz, egun batean eta bestean, errantxero batekin eta bestekin gertatzen zen.


Gauzak honela, goiz batean errantxeroa izkutatuta gelditu zen, eta non ikusten duen deabru bat zela lapurra. Itsumustuko gertakizun hontan, ikazkina ez zen atzera begira gelditu, talo-burni goritua hartu zuen eta berarekin deabruari sabela aldenik alde pasa.

Nekazari munduan, baserriko ekintza nagusi zela, lantegi apal haien inguruan eta ipui giroan ematen zituen On Jose Migelek bere estraineko urratsak. Aldi berean eskolara joanez, pipar bat edo beste eginez, lgartu mendian gordelekua zuela, solfeoa ikasiz eta eliz-taldean, koruan, abestuz.

Garaian garaiko langintza ezagutu eta aintzin aintzinan sustraia duten ipuiak irudimenean bizituz, zer ikusi, zer entzun, ura ikasi, eta Jose Migel Barandiaranek jakintza arloan fruitu aberats emankorra bihurtu.

Benetako maisu jakintsua izatea lortu, gure herriaren onerako, gaurko eta biharkoari begiratu.

Zorionak behin eta berriz On Jose Migel, maisu eta adiskide agurgarri, eta baita hain herrikoa den gizon ospetsu honen herriari ere, Ataungo uriari.



Oroitzapena : Joxemiel Barandiaranen umetako Ataungo herria / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Nondik. Mende bateko historia.* - Ataun : Oargi Troskaeta. - 23 zenb (1989 abend.), 38-39 orr.